

4. ildoak: 15-23 URTE BITARTEKO GETXOTARREI GIDABAIMENA ATERATZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEA

1.- HARTZAILEAK

Eskatzaileak, Getxon erroldatutako 15 eta 23 urte bitarteko gazteak izango dira (**2003-2011 bitartean jaiotakoak**, biak barne), gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin dutenak.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

2.1.- Eskatzaileak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin duela ziurtatu beharko du.

2.2.- *Gidabaimena euskaraz* kanpainan parte hartu duen Getxoko autoeskolaren batean atera beharko da, gidabaimena (ikusitako zerrenda udal webgunean).

2.3.- Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.

2.4.- Dirulaguntza eskatu ahal izateko azterketa eginda izan behar da. Azterketa teorikoa 2025ean edo 2026an egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagirik 2025ekoak edo 2026koak beharko dute izan.

2.5.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituenekin, baina dirulaguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

3. DIRULAGUNTZA KOPURUAK

Matrikulak lagunduko dira baina ez tasak; laguntzen esparrua hau izango da:

- **Ziklomotorren, motozikleten eta automobilen** gidabaimena ateratzeko **azterketa teorikoa** euskaraz egin eta gainditzea.
- Laguntza ez da izango eskatzailearen **gastuen %80a baino handiago eta 300 euro gehienez**. Eskatzailearen gastuak, "4. ataleko 01.-Faktura originalak" puntuan jasotzen direnak izango dira.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

01.- Faktura originalak: gidabaimena ateratzeko, teorikoan edota praktikoan, eskatzaileak izandako **gastuen jatorrizko ordainagiriak** (matrikula, azterketa tasak eta abar).

02 eta 03.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko ditu ziurtagiri hauek.

04.- Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren ziurtagiria, non esaten den gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin dela. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

Getxoko Udalarekin zor tributariorik ez izatea ere konprobatuko du Euskara Zerbitzuak.